

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko apirilaren 14a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Arbizu • Udalak bultzatuta eta asmozbeta sortu berri da Zizkerte kultur taldea

Los Jafans • «60ko kantek zuten xarma ez da oraindik galdu»

Emakume



enpresariak abian European

Iragan astean, Frantzia, Italia (Lombardia eta Sardinia), Finlandia eta Portugalgo emakumeen elkarteetako arduradunak eta herrialde horietako zenbait emakume enpresari Iruñean bildu ziren, elkarrekin aztertzeko inguru horietan emakumeek dituzten arazo garrantzitsuenak eta horiek konpontzeko erabiltzen dituzten formulak. Bisita hori Recife europar programaren barruan egin dute.



Arbizu • Zizkerte?

Kultur arloko mugimendu eskasia sustatu asmoz sortu da taldea

Herriari kultur eskaintza finko bat ematea da Zizkerte taldearen helburua eta, jadanik, lanean gogotsu ari dira hainbat arbizuar.



Herrian zegoen kultur mugimendu eskasak kezkatuta, Arbizuko Udalak Zizkerte kultur taldearen sorrera bultzatu du. ● CRISTINA BERIAIN

ZIZKERTE. HALA DA, BERTAKO dermioko mapan begiratzea besterik ez dago. Eta horregatik, izen berezia delako, baita beren gustukoa zelako ere, Arbizuko kultur taldeari izena emanen dio aurreantzean. Izena izana definitu eta gero etorri zen. Taldearen nondik norakoak lotuta zituztenean, gelan zegoen herriko dermioaren mapa esku artean hartu eta bildutakoetatik gogokoena topatutakoan bukatu zen izen dantza.

Izena badugu, baina zergatik bildu ziren? Nonbait Arbizuko Udalak kezka azaldu zuen kultur arloan herrian zegoen mugimendu eskasagatik. Honela bada, kultur kontuak bulkatu nahian, herriko hainbat jendekin harremanetan jarri zen Arbizuko Herriko Etxea. Bilerek, esan bezala, emaitza eman dute eta taldea estatutu eta guzti osatu da, Jua Carlos Reparaz lehendakari kargurako izendatu dutelarik.

Zizkerte kultur taldea premia batek bultzatuta sortu da, orain arte Arbizun kultur kontuan ezer gutxi egin izan baita. Azken urteetan, behin

edo beste, maila handiko ekitaldiak antolatu izan dira herrian (Atxagaren hitzaldia, *Ama begira zazu* antzezlan, Ruper Ordorika eta beste hainbat musikariren kantaldiak), baina sekula ez dute segidarik izan. Eta hain bakan egin dira, ezen Udala bera ere arduratzen hasia baitzen. Zizkerte taldearen helburua horri guztiari aurre egitea da, dauden indarrak bilduz eta bideratuz.

Pasatu dira hilabete batzuk lehen bilkuratik. Gaur egun bilerak egiten jarraitzen dute, aurtengo egutegia prestatzen

kultur jarduerak jarraipen bat izan dezaten. Dagoeneko, gauzak zehazten hasiak dira. Asmoen artean, lehenetako bat Arbizuko ludoteka sortzea da (aurki da martxan jartzekoa). San Joan festetarako edo, aldizkari bat karrikatze ideia buruan bueltaka dabilkie Zizkertekoei. Ez hori bakarrik, behar den tokian diru laguntzak eskatuak dituzte, hala, uda partean, herrian zenbait tailer antolatu ahal izateko. Aurrera begira, bertako historia eta euskara ere ez dira Zizkerte kultur taldearen jomugatik urrun egonen.

Guztia aurrera eramateko zazpi bat lagun biltzen dira. Hala ere, haien esanetan, ez daude beraiek nahi lituzketen guztiak. Hori dela eta, gonbita egin diete Arbizuko elkarte, talde eta pertsona guztiei kultur taldearen bileretan parte hartzeko, guztien artean lan egiteko azken finean. Oso garbi dute gauza asko egin daitezkeela herrian, baina, herria implikatuz gero, errazago izanen da. Agi danetz, lan egiteko gogo bizia dute Arbizun.

→ Alfredo Alvaro Igoa

Bera • Liburu Eguna, erotismoaren haritik


URTERO BEZALA, NAZIOARTEKO Liburu Eguna dela eta, Lamixine BAT taldeak ospakizun berezia prestatu du gaurko. Aitzineko urteetan idazleek parte hartu izan dute, eta bertzeak bertze, Arrate Egaña, Harkaitz Cano, Ur Apalategi, Alfonso Sastre eta Jabier Muguruza aritu izan dira ekitaldi honetan.

Aurten literatura erotikoa hautatu dute gai moduan, eta idazle bakar baten gaineko testuekin lan egiten ez duten lehendabiziko aldia izanen da. Gonbidatu ugari izanen da, eta lan antologikoa ez ezik, okasiorako prestatutako testuak ere izanen dira. Horretarako, Lamixine BAT taldeko kideek hainbat testu aukeratu dituzte, bertze idazle batzuek idatzitakoak, eta horiek irakurri eta antzestu egiten dituzte. Testuak, gehienbat euskaraz izanen badira ere, gaztelaniaz, italieraz eta portugesez ere irakurriko dituzte. Lamixine BAT taldeko kideez gain, bertzelako gonbidatu talde bat ere izanen da ikuskizunean. Jean Louis Hargous saxo jolea ariko da, bate-tik, eta Pantxika Telleria dantzaria bertzetik. Euren ekarpen literarioa egiten dute, bertzelde, Fermintxo Arkotxa, Ur Apalategi eta Maripi Solbes idazleek, eta Rut Agirre aktoreak ere parte hartuko du ikuskizunean. Emanaldia 20:00etan hasiko da gaur, Euskalduna ostatuan.

→ Jon Abril

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Normalean ez zituen senarrari zuzendutako gutunak irakurtzen. Kontua da, egun hartan emaztea etxean bakarrik zegoela; senarra, ordu hartantxe, herririk herri ibiliko zen, ogibidez makinaria saltzailea baitzen. Txirrina jo zuten orduan.

«Beno, zure senarra etxean ezbadago, berdindio. Zuk zerorrek izenpetu, eta eragin guztietarako berak jaso izan balu bezala geratuko da erregistro-liburuan».

Postariak luzatutako liburuan idatzi zituen bere izen-deiturak eta NAN-en zenbakia, eta atea itxi orduko, konturatu zen trafiko-isuna zela postariak eskura emandako jakinarazpena.

Ustekabea aldiz, gutunazala urratu ahala heldu zitzaion; alegia, argazkian ezin argiago

Argazkia

agertzen zen-eta senarraren aurpegia eta bera- ren autoa, Los Abetos hoteleko aparkatokira sartzen. Isun-boletinak zioenez, 25.000 pezetako zigorra ezartzen zitzaion maniobra egiterakoan baimenduriko gehienezko abiadura urratzeagatik.

Argazkian, esan bezala, senarra agertzen zen gidariaren tokian. Alboan eserita, nor eta, enpresako nagusiaren emaztea, adats gorrixkako ponpoxa hori. Isunaren eguna: martxoaren 24a, senar-emazteen seme txikiaren urtebetetze eguna. Ordua: arratsaldeko bostak eta hamar.

Eta arras ongi oroitu zuen egun hartan gertatutakoa. Izan ere, zera esan zion senarrak, aitzakia gisa, semearen aldeko festatxoan ez agertzeko; pena ematen ziola, baina bazuela bilera bat Tuterako bezero batekin arratsaldean, eta zinez saia-

tuko zela etxeraten, baina seguruenik, ez zuela garaiz etortzerik izanen, eta abar.

Egun batzuk igaro dira postariaren gutuna jaso, eta isilean gorde zuenetik. Alabaina, senarra etxeko korridorean orpo orpo topatzen zuen bakoitzean, zalantzatan ikusten zuen bere burua, ez baitzekien zehazki zer egin: urdaiazpikoa mozteko zerabilen sukaldeko labana heldu, eta jata!, bertantxe garbitu edo txindurriandako hautsak hartu, eta goizeko kafesnean pitinka zerbitzatu.

Zer eginen ote zuen emazte honek?

Emazteak telefono-agenda hartu zuen esku artean, eta zenbaki bat markatu: «Kaixo, Paul; aspalditik. Gogoratzen al haiz, behin esan hidan, zer gerta ere, nirekin gustura...».

Lizaso • Naturarekin bat, ikusmenik gabe

Itsuek bisitaldi gidatuak egin ahal izanen dituzte Orgi Hariztian zehar

Lizasoko Kontzejuak eta Ingurugiro Sailak kudeatzen duten Orgi hariztiko parkeak ONCE erakundearekin hitzarmena sinatuko du. Parke horrek Ultzamaldeko bidexkak lehengoratzeko proiektua ere egin du.



Orgiko parkeak ONCEekin sinatuko duen hitzarmenari esker, itsuek parkearen xarmaz jabetzeko aukera izanen dute. CRISTINA BERTAIN

EZ DA BEHARREZKOA IKUSmena edukitzea naturak eskaintzen duenaz gozatzeko, lore eta landare desberdinen usaina, ukimena, txorien kantuak eta abarrak begiak itxita ere sentitzen dira. Horixe pentsatu zuten Orgi hariztia parke naturaleko langileek. Parke horretako monitore Edurne Gerendiainen arabera, «aldaketak batez ere zorua berdintzeko egingen diren, gorabehera asko baititu. «Arrapala batzuk paratuko dira eta heltzeko soka bat bide osoan zehar. Gainera, zati batzuk urez gainezka daude eta moldatu egin behar dira». Braillez idatzitako interpretazio panelak ere paratzeko asmoa dute. Eta bertako langileek pres-takuntza berezia beharko

Proiektua osatu ondoren, ONCE erakundeari aurkeztu zioten eta arrunt interesgarria iruditu zitzaion honi. Bertan, ibilbide bat itsuendako egokitzeko plana ere sartzen da. Edurne Gerendiainen arabera, «aldaketak batez ere zorua berdintzeko egingen diren, gorabehera asko baititu. «Arrapala batzuk paratuko dira eta heltzeko soka bat bide osoan zehar. Gainera, zati batzuk urez gainezka daude eta moldatu egin behar dira». Braillez idatzitako interpretazio panelak ere paratzeko asmoa dute.

Eta bertako langileek pres-takuntza berezia beharko

dute horrelako bisitaldiak jaso ahal izateko. Izan ere, monitoreak aipatu duenez, «badira gauza batzuk ikasi behar ditugunak; adibidez, guk beti erabiltzen ditugu 'begira', 'ikus' eta antzekoak, eta ohitura hori aldatu beharko dugu». ONCE-Nafarroa arduratuko da prestakuntza emateaz; ONCE Fundazioak bi milioi eta erdiko aurrekontuaren bi heren finantzatu ditu. Gainerakoa Lizasoko Kontzejuak paratuko du.

Bertzelako proiektuak ere prestatu dituzte parke horretako langileek. Alde batetik, Ultzamako oihanetan dauden

bidexka batzuk lehengoratzeko plana hango Udalarari aurkeztu zioten, baita onartu ere. Beraz, hemendik gutxira garbiketa lanak hasiko dituzte. Bertze aldetik, ornitologia, mikologia, botanika eta paisaiaren interpretazio ikastaroak egiteko plana Nafarroako Kutzari aurkeztu zioten, eta erantzunaren zain daude. Onartuz gero, botanika ikastaroa udaberri honetan bertan has daiteke.

Orgi hariztia 1996an ireki zen. 1999an, 42.000 lagun inguru izan ziren bertan.

→ Txari Eleta

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Ginekologia eta irrati kontuak

Berako Uxua Emakume Taldeak ginekologia kontsulta herrian izateko egin eskaera jaso du **Ttipi-ttapa** aldizkari azken zenbakiak, Asier Gogortzak sinatu artikulua bidez: «Martxoaren 23ko Udaltzatzen, bertzeak bertze, gai hau izan zuten solasgai hautetsi eta han bildutako herritarrek. Uxua Emakume Taldeko bi kidek egindako proposamenarekin ados agertu zen Udaltzatza osoa, arrazoiak ere naski nabarmenak baitira».

«Emakumeek azaldu zuten, ginekologoarengana joan nahi duten aunitzek ez dute kotxerik Elizondoraino jo-

ateko, eta bertalde, Bortzirietan ba omen dago kontsulta bat jartzeko adina emakume. Hautetsiek aho batez onartu zuten emakumeen eskaera, eta beharrezko pausuak emateko konpromezua hartu zuten. Hasteko, Nafarroako Gobernuak Osasunbideari eskaera egitea agindu zuten, eta herrian bertan, gai honetaz sakonago solasteko bilkura bat egiteko deia egin zuten».

Bestalde, Leitzako berrien txokoa, Karrate Irratiko programazio aldaketaz ari da Joseba Azpiroz **Ttipi-ttapa**ko azkenekoan: «Kalitatea bermatu eta

entzulegoaren arreta hobetearren eguneroko programazioan berrikuntzak sartzea erabaki dute esatariek. Horrela, kale inkestak egingen dituzte. Udaleko ordezkariekin irratsaio finkoak zehaztuko dituzte. *Kontu kontari* saioak mahai-inguruaren funtzioa beteko du eta beste bi lagun gehiagorekin batera, Leitzako eta kanpoko gertakari garrantzitsuen inguruko iritzi ezberdinak jasoko dituzte. Bestalde, osasuna eta elikaduraz informazioa jaso eta eskainiko dute, asteartero, eta hamabostero pertsonaia ezagun bat elkarrizketatuko dute».

Plan bat daukat

Miguel Sanzen etxera gauzez iritsiko garenak hiru izango gara. «Euskararen Aldeko Solidarioen» hiru kide hautatuak (hautatuen arteko hautatuenak). Hirurak eskaladan trebatuak eta taldean gure kirolzaletasunarengatik ezagutuak izango gara. Gutako bat, gainera, zirujanoa izango da. Beste bat igeltseroa. Komandoaren izena Kalaberagainekeo Mugarri Beltza izatea erabakiko dugu buzo beltzak banatzeko aurretik egindako bilera ezinezkutuagoan. Bilera horretan halaber Biblia euskaldunaren kopia baten gainean zin egingo dugu, eta zin egiten dugun mementuan konpaktuan jarriko dugun musika Kontrapas izango da, edo Izarren Hautsa (hau erabakitzeko uzten dugu). Gero erlojuak sinkronizatu, hesia igo, bideo kamerak saihestu, laser izpiak saltatu, baratzeko txakurrak drogatu, bizkartzainak narkotizatu, kotxean duen Navarra p'alante pegatina kendu eta zaratarik egin gabe Miguel Sanzen etxera hurbilduko gara. Instant horretan operazioa hasi zenetik bi minutu beteko dira. Gau horretan, zeinak hurrengo eguneko titularrretan «historikoa» izenlaguna hartuko duen, ilargi berriko iluntasunean etxearen paretatik gutako bi eskalatzen igoko gara. Zirujanoa sokekin lotuta igoko dugu bere esku prezia-tuek minik har ez dezaten. Berarekin ekarriko duen kaxa zuria ere sokekin igoko dugu. Bigarren pisuan paretari plata-forma bat itsasi eta gure artean igeltseroa izango denak paretan butron bat egingo du; hau da: zulo bat. Zulo profesional bat, ia-ia zaratarik egin gabe. Baratzeko zuhaitz beltz batetik mozolo baten hots monotonoa baliatuko du horretarako: uh! (zarta!) uh! (zarta!). Behin etxe barruan gaudela, operazioa hasi zenetik bi minutu t'erdia beteko dira. Orduan kaxa zuria irekiko dugu eta izotzen artean babesturik dagoen burmuina aterako. Burmuina ikastola bateko laborategian sortua eta hazitakoa izango da, euskararen hamabigarren urratsa igarotzeko adinakoa, euskararen unibertsoarenganako miresmenean hezitakoa. Logelan Bigarren butron bat egingo dugu. Eta gero beste bat. Azken hau giza harresi batean. Burmuin aldaketa minutu batean burutuko dugu. Eta listo. Lehendakariak hurrengo egunean egingo duen pentsaurreko bitxiaren zain geldituko gara. Gora Kalaberagainekeo Mugarri Beltza! ●

Europako emakume enpresarien

Finlandia, Italia,
Frantzia eta
Portugalgo
emakumeen
elkarteetako arduradunak
Iruñean bildu ziren

topagunea

Urriari abiatu zen Recife programa, Europako emakumeen egoera aztertze eta hobetzeko asmoz. Sei bazkide dira proiektuaren arduradunak, pertsona bana herrialde bakoitzeko: Finlandia, Frantzia, Lombardia, Sardinia, Portugal eta Nafarroa. Iragan astean Iruñean egindako topaketetan ekimen bateratuak bultzatzea zuten helburu, baita lurralde ezberdinetako enpresariak harremanetan jartzea ere.

TOPAGUNEAK HIRU EGUN IRAUN ZUEN. Eta herrialdeetako ordezkariak ezagutu ahal izan zuten zein den emakumearen egoera Nafarroan, batez ere lan merkatuan, eta euren herrietakoekin konparatu ahal izan zuten. Europako kideek ikusi ahal izan zituzten, halaber, zenbait emakume nafarrek bere kargu dituzten zenbait enpresa, bere arazoak eta horiei aurre egiteko erabiltzen dituzten formulak, baliabideak eta lan egiteko modua. Baita alderantziz ere, Nafarroako emakume enpresariak ezagutu ahal izan zituzten beste herrialdeetan erabiltzen diren metodoak.

Iruñean egindako topaketak bi helburu nagusi zituen: bazkideen formazioa, batez ere emakume enpresariak harremanetan jartzea, bestetik. Azken horri dagokionez, asmoa zen etorkizuneko proiektu bateratuak bultzatzeko aukerak aztertzea.

Frantzia izan ezik, beste herrialde guzietan egin dira jadanik topaketak urte honetan. Nafarroako topaketa CEINEK antolatuta zuten, Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzen Zentro Europarrak. Malu Ziordia CEINEko teknikariak dioenez, "egoera oso ezberdina da leku batzuetan eta besteetan; arazoak berdintsuak dira, baina arazo horiek konpontzeko metodoak, programak edo formulak nahiko ezberdinak dira, horiekiko sentsibilitatea oso ezberdina delako".

Ziordiaren hitzetan, emakume enpresariak «beti dituzte arazo berberak, dirulaguntzak lortzeko edo zerbitzuak saltzeko sinesgarritasun falta, esate baterako. Zerbitzu horiek betidanik emakumezkoak eman dituztenak baldin badira ez dago problemarik, baina beste mota batekoa bada, oraindik mesfidantza eta zailtasunak daude».



► Recife programaren xedeak

- Emakumeen egoera hobetzeko Europako 1999ko udazkenean abiatutako programa hiru urte iraungo du.
- Euroko emakumeen zuzendutako enpresak sortu ezendutako enpresak.
- Enpresen harremanak eta proiektuak erraztea.
- Teknologia berrien bitartez enpresen informazio trukea zuzenean bat sortzea.

Recife Nafarroan

Foru Erkidegoan CEIN da Recife programa aurrera ateratzen duen erakundea, eta enpresa munduan sartu diren emakumeen laguntza eta informazioa ematez arduratzen da.

Ziordiak dioenez, «Gu Nafarroan sailatzen ari gara emakume guzietan zerbitzuak eskaintzen, leku batean nahiz bestean egon; horretarako osatu dugu kolaboratzaile sare bat eskualdeetako elkarte eta erakundeekin».

Sare horren bitartez, enpresa eta merkaturari buruzko informazio estrategiko orokorra edo zehatza helarazten zaie nahi duten enpresari, kolaboratzaileen edo Interneten bidez. Informazio Estrategikoko Zerbitzu gain, CEINEK eta programako kolaboratzaileek aholku zerbitzua eskaintzen dute.

Egun, Nafarroan, emakumeek zuzendutako 29 enpresa parte hartzen ari dira Recife programan. Jadanik antolatuta dira proiektu azaltzeko bost bilera baino gehiago eta beste zenbait jardunaldi hainbat herritan.

→ Eva Aranguren

P O R T U G A L

Christine Ferreiro



■ Zein da emakumearen egoera Portugalen?

Emakumeen langabezi tasa oso altua da, batez ere hiritik kanpo. Eskualde batzuetan langabezi tasa %12tik %18ra bitartekoa da, eta beste batzuetan altuagoa. Beraz, emakumeak jasan behar izaten dituen beharrak oso garrantzitsuak dira. Emakumeak dira behartsu gehienak. Bestalde, emakumearen aurkako indarkeria arazo larria da, eta abortoa ez da legala. Beraz, egoera nahiko konplikatu da.

■ Zein da zure elkartearen eginkizuna?

Herrietan izaten den egoera latzak behartzen du jendea, eta batez ere emakumeak, hiritetara joatera. Gu sailatzen gara hori galarazten enplegua sortzeko ekimenak bultzatuz eta lagunduz.

■ Zer ezberdintasun nabari dituzu Portugalen eta Nafarroaren artean?

Aukerak hemen askoz ere hobeak eta ugariagoak dira. Emakumeak dituzten baliabideak dira lana bilatzeko, enpresa bat sortzeko. Ezberdintasun horiek zein diren jakiteko oso baliagarriak iruditzen zaizkit Recife programa eta topaketa hauek.

L O M B A R D I A

Chiara Savatteri



■ Zein da egoera Lombardian?

Lombardiako egoera berezia du. Hirialde garrantzitsu eta handia du. Milan, biztanle askorekin. Emakumeak hirietan oso baldintzatuta daude lana, familia eta etxeko betebeharrangatik; haien lan errendimendua oso azkarra da, distantziak oso handiak direlako. Italia da, bestalde, Europako Parlamentuko ordezkari-tzan emakume gutxien duen herrialdea. Eta langabeziari dagokionez?

Alde handia dago Lombardiako leku batzuetatik besteetara, baita gizonen artean emakumeen artean ere. Italiako beste inguruekin konparatuz gero, ona da. Italiako hegoaldean emakumeen langabezi tasa %35koa da, eta Lombardian %10etik %12ra bitartekoa. Baina hori guretzat arazo bat da, gizonen arteko langabeziaren %3koa delako.

Zein da egoera enpresen sorkuntzari dagokionez?

Emakume italiarrak ez dira arriskatzen enpresa bat sortzen. Dena den, orain badira ekimen enpresariala bultzatzen duten legeak. Orain arte, emakumeek zuzendutako enpresak betiko sektoreetakoak ziren, ile-apaindegia, loradendak... Baina ez zegoen zerbitzu enpresarik. Egoera, baina, aldatuko da hurrengo urteetan.

S A R D I N I A

Daniela Boi



■ Zeintzuk dira emakumearen arazoak Sardinian?

Sardinian modernizazioa oso azkar gertatu zen. 70eko urteak arte, emakumeen enplegu tasa oso baxua zen. Orain asko igo da, baina, hala ere, langabezia oso altua da. Tasa orokorra %20koa da, gutxi gorabehera; baina emakumeena, %36koa, gizonen bikoitza. Baina orain indartzen ari da enpresen sorkuntza. Ekimen publiko eta pribatu ugari daude hori bultzatzeko.

■ Zeintzuk dira eragozpen eta zailtasun nagusiak?

Sardinian historikoki matriarkatu izan da. Beraz, emakumearen egoera, kulturalki, ona da, errespetatzen delako. Baina zerbitzu sozialak gehiago garatu behar dira. Lan egiten duten emakumeek arazoak dituzte lana eta familia bateratzeko. Baina goi postuetara alagatzeko ez dute arazorik. Momentu honetan Sardinian emakume asko daude oso postu onetan.

F I N L A N D I A

Mirja Erlund



■ Zein da emakumearen egoera Finlandian?

Oro har, ona. Lege eta neurri asko daude gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ziurtatzeko. Baina arazo bat ere badago: batzuetan, emakumeen elkarteeetako ekimenak gizonen aurka egiten direla uste dute haiek. Horregatik, kontu handia izan behar dugu antolatzen ditugun ekintzak ondo uler daitezen. Ez dugu nahi gure sexua kontuan hartzea, egiten duguna baiziki.

■ Lanean agintea lortzeko ez al duzue arazorik?

Ez. Gertatzen dena da emakumeek, gehienetan, nahiago dutela ondo bizi, denbora libre eduki, eta hori goi postuetan oso zaila da. Baina lortzeko, normalean, ez dugu problemarik. Ezta etxeko lanak banatzeko orduan ere?

Normalean, ez. Izan ere, emakumea erditu ondoren, normalean haurra zaintzeko gizonak eskatzen du baimena lanean. Etxeko lanek dagokionez, oro har, ez dago arazorik.

puntu-puntu

Recife programa: Zer da?

Emakumearen egoera hobetzeko Europako antolatutako programa bat da. 1999ko udazkenean jarri zen martxan, eta bi urte oso iraungo du.

■ Nori zuzenduta dago?

► Programako ekintza guztiak Europako emakumeen zuzenduta daude, eta batez ere enpresariak.

Helburu nagusia

► Oro har, emakumeen egoera hobetzea eta batez ere haiek sortutako edota zuzendutako enpresak

bultzatzea, hala nola haien arteko harremanak eta proiektu komunak erraztea, elkarguneak sortuz.

Baliabideak

► Teknologia berrien bitartez, informazio sare bat sortu nahi da, enpresen arteko informazio trukaketak errazteko eta proiektu komunak aurrera ateratzeko.

Eragileak, Nafarroan

► CEIN (Malu Ziordia, 948-426018); Gar (Arantzeta Arregi, 948 451654); TEDER (Cristina, 948-552711); EDER (Ruben Aguado, 948-846); Alaiz elkarte (Begoña Arrieta, 948-252485); EDNA (Laura Alba, 948-426032); eta Erdialdeko Gar (Erdialdeko Partzuergoa (Cristina Baiona, 948-7407).

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Irigarai eta Astitzen arteko tirabiraz

Badira 33 urte Principe de Viana erakundeak euskaraz karrikatzen zuen paperaren orriotan Aingeru Irigarainen eta Andres Astitzen artean jazoriko eztabaida baten arrazoiak pausatu zirenetik.



Apat Etxebarne ezizen ezagunaren atzean bere burua jada ezkututzen ez zuen Aingeru Irigarai *Kontzilioa eta kristau irakaspenak* izenburuko kolaborazioa agertarazi zuen 1967ko azaro-abenduko zenbakian. Bertan astero-astero Frantzisko Astitz Arregik ateratzen zuen *Ikasi-mikasi* sailaren funtsa eta asmoa gogor kritikatu zuen Berako medikuak. Bere ustez, fraile pasiotarraren idazkiak euskara jatorrean eginak bazeuden ere, herrietako euskaldun zaharrekiko mespretxuzko jarrera garbia bazerren, eta egilearen azkeneko asmoak zehazki bete beharrean, fedea galtzera eroten zituen irakurleak tamalez. Hona hemen Irigarainen hitz gogor haiek: «Ikasi-mikasi izenburu daraman ataleko artikulutxoak irakurtzen ditugu maiz. Euskara pollita eta herrikoia derabillala Astiz-Arregui jaunak, gogotik aitortzen dugu. Baina gure Fedea ahulago sentitzen dugula batzutan, horiek irakur eta, adiarazi beharko dugu ere, damurik. Iduri luke gure inguruko euskaldun arrontak, kaiku batzu direla, Konzilioaren edo Joanes XXIII Aita Sanduaren esanen berririk ez dituztenak. Baina ezta batere hola: umillak eta ixilak izateak ezdu esan nai, adimendu laburreko direla gure herritarrak».

Frantzisko Astitz Arregi, eliz izenez San Frantzisko Xabierkoaren Andres aita pasiotarra, Goldaritzen sortu zitzaigun, 1908ko azaroaren 22an. Bere aita Andres Astitz Oderitz Goldarazko bertsolari sonatua zen; bost seme-alabarekin alargundu ostean Arruizko Josefa Arregirekin bigarren ezkondu eta beste hamalau seme-alaba izan zituen, haietarik bat gure Frantzisko izan zelarik. Gazte-gazte zela, eta etxean guztiendako tokia ez zelako edo, gauza nabarmena dena ordea, gure Frantzisko Gabiriako pasiotarren komen-

tura joan zen 1919an, eta Arabako Angostako, Coruña Mellideko zein Bilboko komentuetatik igaro eta gero, Tafallako etxera arribatu zen idazteuna eta zuzenbide kanoniko irakasle; Astitz Arregi Tafallan bertan zendu zen, 1986an. Idazle moduan bai erderaz zein euskaraz izkiriatu eta argitaratu zuen; erderaz *Redención* eta *La Cruz* aldizkarietan atera zituen kolaborazioez gainera *Los grandes interrogantes* izenburuko liburua atera zuen Zallan 1952an. Euskaraz, eta *Principe de Vianako Ikasi-mikasi* sailaz aparte, bere aitaren bertsoak eta ipuinak biltzen dituen liburua apailatu zuen, *Goldarazko bertsolariaren kontu eta bertsoak*, Principe de Viana erakundeak berak 1960an argitaratu eman zuena. *Principe de Vianako Ikasi-mikasi* saila funtsean gai erlijiosoak lantzeko erabili zuen, baina ez zuen aukera galdu euskararen inguruan pentsatzen zituena ere plazaratzeko, eta ohikoan zarabilen euskarari erreparatu, bateko zein besteko berrikuntza zalegia ez zela aisa usna daiteke.

Frantzisko Astitzek ez zuen utzi Irigarainen kolaborazioa erantzun gabe, eta *A. Apat Etxebarne 'i ku-kul'* izenburupean, 1968ko lehenbiziko zenbakian bereak eta asto zaharrenak ere esan zizkion Irigarai medikuari: «Zu, Etxebarne jauna, infernuko erlaxtiñen zartakoa eman deez! Ez duzu beñee aithu Jesukristoen mandatu au: zure anaiak zerbait egin bado zure kontra, edo pekatun baten erori bada, zoaz berarengana eta esaiozu, biek bakarrik zaudetela? Zu ta biek, *Principe de Vianan* langille bai gea, etziñakin non neon? Zergatik ez deezu itz bat e-



esan, olako zalaparta atea baño len? Gauzeat, baka-rrik, ekusten da zure idazkai ozpiñezko ortan: ni ezaizela zure santo debotoa. Beste arrazoik ez dezula».

Irigarai ez zitzaion mintzo, ordea, horren zakar eta zantarki. Gauza jakina da belau-naldi hartako idazle laikoek ere sentimendu kristau sutsua zutela, barnebarnean iltzaturik, eta Irigarai ez zen hartaz salbu. Sentimendu kristaua baina modernoa aldi berean, eta lehenagoko lotura hertsia haiekiko alde hartuz, elizaren berritzean sinesten zuten guztiz gehien. Kexu azaldu

zitzaion Irigarai, beraz, *Ikasi-mikasi*-n Astitzek botatakoak garai berrietarako egokiak ez baitziren: «Uste dugu gaur eztiñela azaltzea komeni orai 25 urteko misiotan bataio sariaz kontatzen aal ziren irringarriak», eta arrenkiro eskatzen zion haize berriak indartsuago hartzeko:

«Euskaldun kristauak, bereziki gazteak eta epelak, ez direla gaur bildurrezko elektakin biltzen, badakizu. Aldizkari huntan berean *Elizaren itza* deitu atalean artikulistik Konziliorako irakaspen zeatzak ematen oi ditu (...) Irakaspen ok jakitea komeni dela iduri zaigu, goregi badira ere». Halaz guztiz, Astitzek ez zion gomen-dioa Irigarairi onartu, izan ere, «guregana urbilleraiz nai ditogunai eo guregandik eskadaka bezala dabiltzenai leunkeriz eta amodioz itz ein bear zaiela, konforme!, baño Napparroako gizon eta mutillei ebanjelioak diaguna izkutatu bear diegula? Enao konforme! Bestela, bota ditzagun sura Liburu Santu Guziki, eta akao!». Bistan da sor-mutuen solasa izan zela Irigarai eta Astitzek elkarrekin eraman zutena.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Zakar erretzeko zotzak

GEREZIAK: Ha-siak ditugu loratzen. Horra gereziando goiz loratua, nexka maitemindua iduri, soineko xuri puntildunez, nonahi lahar tartean tabratual Horra, Mendekoste gereziak Jean, lore xuritan, bihar odol tanto (sic) gorri izanen direla ahaztuak. Izan ere, moderniak, lurrean ez beste guzian erakusten baitigu udaberria. Lakoizketako ero xarmagarri hari ikasia dizut: «*Lúculok eka-rrri zuela gerezia Asia Txipiko Zerasonte herritik, eta hainjuxtu, herrizen harixe zor diola izena ere*». Hala, orotariko hiztegi gureak dio *ceresia* latinoan duela sorburu gure *gereziak*, eta agian *cericier* frantsesak ere bai. Dena dela, ezagutuko ote da gehiago *gerezi denbora* zelako harenik gurean? Holako zenbat *denbora* ari ote gara galtzen? Eta *ezpazioak* hortxe dirau.

GORROTOAZ: Gorrotoa ahularen gaitza da; indarrak gaitzetsi egiten du. Eta errukiak, nonbaitean, gaitzespenak baino indar finagoa eskatzen du. Indarretik sortutako errukiaz ari naiz, entenitzera-koan loratu eta gaitzesterakoan umotu denaz. Gorrotoaren beste itxura engainagarria, beldurak edo koldarkeriak karetx bihurtu duena duzu. Karetx horrixe hazka bizi da, besteak beste, gure espanolista edo iraultzaile usteko lautik hirua. Gereziando bana aldatu behar genuke euskaldunok, lizar orde, maiatzean lore xuriak espainolistei ematen eta uztailan ginga gorriak gerok jaten ikasteko. Txipiak haundia, buruz eta xalo ez bada, nola azpirar?

GURE KULTURAZ: «*euskal herritar orok euskaraz ikasteko eskubidea duen neurrian, euskal herriko historia, izaera, eta mami hori guztia barneratzea eskubide eta betebeharrak izan beharko luke, bestela euskara dakien espainol edo frantses kulturadun herritarrak sortzen baitira*». Abertzale izan

edo ez, euskaldun sano batek, esan lezakeen gauzarik simple-ena duzu. Baina, zorigaitzez, ez daukat gogoan ETaren komunikatu batean baizik leiturik. Hortik atera non gabiltzan oraindik? Neronek badut, lanen bat edo beste, ustez esaldi horren faboretan burutua, baina, badakit ongisko neure herrialdeko politiko abertzaleek, endemas EA edo HB inguruko kultur eragileek, nolako jarrera erakutsi didaten.

HERRI ORDEZKARIAK: Demokrazia, oi demokrazia! Herritar jatorren inperioal Ez? Hitzak hala omen dio. Baina, hitzak engainamundu ergel batzuk izaten dira maizexko. Itsua ez denak bai baitaki, bere partiduan (sektan? setan?) bertan, ordezkariarik txarren eta zuriaren artean aukeratu behar izaten duela besterik ezean. Hala, ordezkorik bozkatu-tenek ere, ez dute herritarren gradua txartu baizik egiten, izanez ere, herria ordezkaturiko duten okerrenen artean aukeratu behar izaten baita demokraziarik hoberena. Batek nahi duena ordezkatzeko aukera izanen balu ere, zer ordea? Niri nahi baino gehiagotan tokatzen zait neure burua ordezkatzeko instantzia ofizial horietan? Eta lautik hirutan gaizki atera izan naiz, pentsa?

ZINTZOTASUNAZ: Askotan damutzen gara, hark edo honek kararik kara botatakoari, behar den gisan edo garaian erantzun ezagatik. «*Kauen: hola kontestu banio! Orduantxe peatu banio! tonto zarra, ni!*». Bai ote? Ez damurik izan, zaren baino zozoago portatu zarelako ustean. Holaxekoa zara, ez zozoago ez erneago. Gertatzen da, listo usteko akompletuetatik kasik inori ez zaiola gustatzen berez darion zintzotasunaz ohartzea; eta berezko zintzotasuna pittin bat disimulatu ez duela ohartzean, berez den baino zozoagotzat jotzen du bere burua. Hortik datorriko damu gisako hura: den bezal bezalaxe portatu izateagatik.

Ziria

• Motxorrosolo •

Probesten jakin

BALIOA EZ DA IRIZPIDE. ONGI KOKATUAK DIRA, ETA EDQZEIN egokieratan, hondarrak partitzeko tenorea helduta ere, zatirik preziatuena atxikiko dute. Parioa zer den badakiten arren, ez dute inoiz baliatu, egiazko izerdia, bigarren mailako horien afera baita.

Los Jafans

Iruñeko musika taldea

«60ko kantekek zuten xarma ez da oraindik galdu»

Jesus Los Arcos, Pedro Gonzalez, Eduardo Garnika eta Patxi Ancil dira Los Jafans. 1968an sortu zuten taldea, eta, orain, 30 urteren buruan, lehen diskoa plazaratu dute.

Granten Baby, come back, Lennon eta McCartneyren *I feel fine* eta Los Brincosen *Sola dirá* lan horretan bildutako kantetako batzuk.



DUELA 30 URTEKO GAZTE-ek ederki ezagutzen dituzte Los Jafans taldeko kideek garai hartako abesti ospetsuenak oinarritzat hartuz egindako bertsoak. Taldea 1971an desegin ondoren, duela bi urte elkartu ziren berriro, eta gaur euren lehen diskoa aurkeztuko dute Iruñeko Blues aretoan.

■ **Taldea sortu eta 30 urte igaro ondoren plazaratu duzue lehen diskoa. Zergatik espetu duzue hainbeste?**

Duela 30 urte oso zaila zelako disko bat grabatzea. Ezinezkoa zen. Gainera, hori ez zen inoiz gure asmoa izan. Musikaren munduak beste era batera funtzionatzen zuen, eta disketxe baten deia-zen zain egon behar zenuen disko bat grabatu ahal izateko. Bestela, ez zenuen estudio batera ailegatzeko aukerarik. Orain aukera eskuan izan dugu eta aprobetxatu besterik ez dugu egin.

■ **Zer-nolako diskoa egin duzue?**

60ko hamarkadan egiten zen musikaren bilduma bat da, orduko abestiek zuten xarma ez baita oraindik galdu. Diskoan sartu nahi genituen abesti asko genituen, baina, azkenean, gure ustez hamarkada horretako hamar abesti esanguratsuenak aukeratu ditugu. Garai hartako kanta ezagunenetako batzuk dira; orduan egiten zen musika islatzen duten abestiak, alegia. Soul, pop eta rocka lantzen ziren, batez ere.

■ **Los Jafans taldearen abestirik ez dago diskotan?**

Ez. Gure abestiak baditugu, baina oraingo lan honetan ez sartzea erabaki dugu. Agian hurrengoan, hori izan daiteke egin beharreko hurrengo urratsa.

■ **Lehenengo urratsa, berriz, 1968. urtean egin zenuen, urte hartan sortu baitzenuten taldea, ezta?**

Bai, guztiok elkar ezagutzen genuen, baina beste musika talde batzuetan ari ginen. Azkenean, elkarrekin jotzeko gogoak bultzatuta elkartzea erabaki, eta horrela hasi zen taldearen ibilbidea.

■ **Non jotzen zenuen?**

Garai hartan leku asko zegoen Iruñean. Ostatu eta aretoetan jotzen genuen, eta besteak beste Donibane edo Amaia elkarteek ere dantzaldiak antolatzen zituzten. Jaialdiak ere baziren, eta haietako bat Gaiarre antzokian egiten zen. Baina behin tirabirak izan ziren, antzokiko eserlekuak apurtu zituztelako. Garai hartan, gu bezalako txima luzedunoi egozten ziguten gauza guztien errua. Gipuzkoan ere asko jotzen genuen, han talde gutxi baitzegoen garai hartan. Ahalegin handirik egin gabe, hilero hogeit bat kontzertu ematen genituen.

■ **Taldea 1971. urtean banatu zen, zer dela eta?**

Soldadutzara joan behar izan genuela izan zen arrazoi nagusia. Soldadutzatik bueltan jotzen jarraitu genuen,

Iruñeko Arion estudioa da Los Jafans taldeko kideen bilgune, hango arduradunetako bat baita Jesus Los Arcos baxu jolea. Duela bi urte hasi ziren berriro Arionen biltzen lau musikari iruindarrak, eta diskoa grabatzeko aukerari ez diote ihes egiten utzi.

Gaurko aurkezpenean 60ko doinuak eta giroa ekarriko dituzte gogora Los Jafansek kideek. «Nahiko arraroak ginen orduko gazteak, gure txima luze, galtza zabal eta botinekin», erran dute taldekideek, baina pozik gogoratu dituzte orduko bizipenak.

Los Jafansek musikarientzat 60ko hamarkadan nazioartean egiten ari zen musika ezagutzera emateko egindako lana izan da garrantzitsua. «orduan ez baitzegoen, orain bezala, musika etxean entzuteko aukerarik».

baina egoera ezberdina zen. Orkestrek gero eta arrakasta gehiago zuten, eta, pixkanaka-pixkanaka, taldea utzi egin genuen.

■ **Eta 30 urteren buruan, bat egin duzue berriro.**

Bai, errua emazteak Patxiri oparitutako bateriak izan du. Elkarri deika hasi ginen, elkartzeko aukeraz hitz egiten, eta, azkenean, egin genuen. Ez da batere zaila izan, denok

pozez hartu baitugu berriro elkarrekin jotzeko aukera. Hori zen nahi genuena, eta Patxiren bateriak behar genuen aitzakia eman digu.

■ **Denbora gehiegi igaro ote den beldur ez zarete? Jendeak zuen lana ongi hartuko duela uste duzue?**

Hala gertatzen ari da. Diskoa orain plazaratu dugu, baina 1998an hasi ginen berriro elkarrekin jotzen.

«Garai hartan leku asko zegoen Iruñean jotzeko. Ostatu eta aretoetan jotzen genuen, eta, besteak beste, Donibane edo Amaia elkarteek ere dantzaldiak antolatzen zituzten.

Jaialdiak ere baziren, eta haietako bat Gaiarre antzokian egiten zen»

Hainbat kontzertu eman ditugu eta guztietan jendea pozik geratu da. Hasieran nahiko gaizki egiten genuela onartu behar dugu, baina entseguek espero genuen emaitza eman dute. Duela 30 urteko oroitzapenak astindu dizkio gure musikak jende askori, eta garai hartako emozioak sentitzen hasi dira berriro. 60ko hamarkada iraultza garaia izan zen eta gu errebeldeak ginen. Diktadura garaia zen, errepresio garaia, batez ere, gu bezala, orduko ereduak apurtzen saiatzen zirenetzat.

■ **Diskoa gaur bertan aurkeztuko duzue; urduri?**

Ez, lagun arteko kontzertua izanen dela uste dugu. Orduko eta oraingo jendea bilduko da, finean, orduko abesti berak entzuten baitira gaur egun ere. Guk egiten genuen musika da orain irrati kate guztietan jartzen dutena, eta orduko abestien bertsoak etengabe agertzen ari dira. Musikaren esparruan aldaketak gertatu dira, batez ere teknikari dagokionez, baina ordukoa maite du oraindik jendeak.

→ Edurne Elizondo



Nafar Kronika

Daniel Urrutia

1-3

Antza denez, azken partida galdu egin dugu euskaldunok: Oinarriak-ek 48.246 - UPNK 152.000. Aise irabazi digite erreionalistek. «Oinarriak-en ekimena guziz errespetagarria da, baina kantitateari dagokionez ez da esanguratsua esatea 48.000 sinadura dituztela, horri erantzun ahal diogulako guk 152.000 boto ditugula, zeinak esaten diguten Euskararen legea aldatzeko hain zuzen Oinarriak-ek eskatzen duenaren kontrako norabidean». To!

Euskararen afera alde batera utziz, dirudienegaz Lege Naturalaren Alderdia eta Espainia-2000 Plataforma falangistarekin batera, Oinarriak izeneko alderdiak ere hartu zuen parte Espainiako azken hauteskundeetan. Publizitatean ez zuten askorik gastatuko!

Hauteskunde eta sinadura biltzea kontzeptuak ezberdintzea zail samar egiten zaio Mitxelenaen irakurle porrokatuari. Baina ez da bakarria. Anitz politikorendako, demokrazia deitzen duten horretan herritarren esku-hartze politikoa hauteskundeetara mugatu behar da. Demokrazia zuzena ezinezkoa dela diote. Eta horrekin jokatzeko dute. Hauteskundeetan inork irakurtzen ez duen programa bat aurkeztu eta ordenaren aldekoen botoa jaso. 152.000 txeke zuri. Bai ote? UPNren boto-emale guziak ote dira euskararen etsaiak, Itoizko urtegiaren aldekoak, abortuaren kontrakoak, Osasunako zaleak, katoliko praktikanteak, kapitalista amorratuak, ardo gorri edaleak...? Bai ote? Hori guziaz galdetzea ahaztu zitzaizten. Baina txekea sinatu zutenek ere badute zer erratekorik. Erran nahi dute?, errateko modurik dute?, eta lekurik? Euskaldunok, partida galdu bai, baina galdera mordo irabazi genuen. Ez da guti!

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Estatu Batuetako The Silos taldeak Donegal tabernan joko du, gaur, 22:00etan.
- **Auza:** Bihar gaupasa izanen da, gaueko hamabietatik aurrera. Laiotz taldearekin, eskualdeko AEKren alde.
- **Iruñea:** Igandean, Haur Kantari Txapelketaren finala izanen da Gaiarre antzokian, 11:00etatik aurrera.

HITZALDIAK

- **Burlata:** Gaur, 20:00etan, Axular elkartearen, *Euskal Herritik Euskal Hirira* hitzaldia eskainiko du Eguzkiko kide Alberto Friasek.
- **Iruñea:** Gaur, 20:00etan, Erraldioen Txokoa, *Hitzkuntza eta talde-nortasuna* izanen du mintzagai Joxe Azurmendi idazle eta irakasleak.

BERTSOLARIAK

- **Hazparne:** Gaur, Patxi Iriart, Mizel Mateo, Maider Garate eta Gillen Hiribarren bertsolariak izanen dira, ikastolan, 15:30ean.
- **Senpere:** Bihar, Oxtikenean, 18:00etan, Eneritz Zabaleta, Xumai Murua, Miren Artetxe, Xabier Paya, Iñaki Bazterretxea, Julen Zelaieta, Alaitz Rekondo eta Jon Martin ariko dira.
- **Bera:** Bihar, kultur etxean, 20:00etan, Txileko payadore eta Euskal Herriko bertsolarien emanaldi berezia izanen da, Xabier Silveira, Sustrai Kolina, Chago Morales eta Viviana Chavesekin.
- **Goizueta:** Igandean, Lubine pilotalekuan, 16:30ean, Nafarroako txapelketako finalean lehiatuko dira Xabier Silveira, Sustrai Kolina, Xabier Legarreta, Estitxu Arozena, Amets Arzallus, Bittor Elizagoien, Manolo Arozena eta Iñigo Olaetxea.

ANTZERKIA

- **Barañain:** Madrilgo El Retablo konpainiak *Aventuras de Don Quijote* lana taularatuko du gaur, 20:00etan, kultur etxean.

ERAKUSKETAK

- **Berriozar:** *Euskara eta kultura* erakusketa kultur etxean izanen da igandea arte, 18:00etatik 20:00etara.
- **Etxarri-Aranatz:** Astearte arte, Euskal Herriko Zinearen His-

toria (1896-1998) izenburuko erakusketa ikus daiteke, kultur etxean, bulego eta zinema orduetan.

- **Iruñea:** Asteazkena arte, Javier Reyren *Nafarroako erromesaldiak* argazki erakusketa ikusgai dago Txantreako Auzotegin, lanegunetan, 18:00etatik 21:30era.
- **Iruñea:** Pello Alberdiren margolanak Molmar galerian (Curia, 18) ikus daitezke, asteazkena arte.
- **Barañain:** *On Kixote Mantxakoa* marrazki erakusketa kultur

etxean izanen da, hilaren 24 arte; lanegunetan, 18:30etik 20:30era.

BESTELAKOAK

- **Tutera:** Orreaga bilguneak mus txapelketa antolatu du Nafarroako kultur elkartearen artean. Horretan parte hartu nahi duten elkarteek 948-222246 telefonora deitu beharko dute gaurko eguna bukatu baino lehen. Finala Tuteran izanen da, maiatzaren 28an.

JOXE LACALLE



Aterki. iz. BOT.

Osagarrien familiako landare kapritxoseoa. Loreak mendian eta perretxikoak basoan izaten diren gisara, aterkiak hirietan ugaltu ohi dira. Aterki landareak, Guardasol vulgaris, zurtoin luze samarra du, gogorra; bere sustrai bakarrak beheara eta gora egiten du; eta bere hosto bakarrak euri tantak jasotzeko itxura ezin hobea du. Normalean euritako ontzietan izaten dira aterkiak, esperoan, hari eta eguzkia ezkutatu eta euria egiten hasten den arte. Orduan, Homo sapiens sapiens animaliak aterkia hartu eta alde batetik bestera eramaten ditu euria har dezaten. Aterkiak irensteak ezinezona, sukarra eta espasmoak eragin ditzake. Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro Departamentuak egin azken estudioaren arabera (1998), aterki kopuruak beheara egin du nabarmen euriarendako propio erabilitako txano kutsakorregatik (Ñonostiar vulgaris).